

Ez dago ilusio faltsurik

'ILEGORRIAREN EMAZTEA'

Izenburua. Ilegorriaren emaztea. Jatorrizko izenburua. *The Wife of the Red-Haired Man*. Egilea. Bill S. Ballinger. Itzultzailea. Xabier Olarra Lizaso. Argitaratze urtea. 2007. Argitaletxea. Igela.

ANDER ARANA

ZORITXARRAK errudun bihurtutako bikotea ihesi, polizia haien atzetik, eta gu, irakurleok, arnasestuka, ihesi doazen Hugh Rohan ilegorriarekin eta haren emazte Mercyekin ihesi, baina baita poliziarekin ere, gaizkileak harrapatu nahian. Hori da, hain zuzen ere, *Ilegorriaren emaztea* ira-

kurtzean gelditu zaigun irudipena, seguruena hori delako egileak irakurlearengan sortu nahi duen sententzia, gu ere harrapatuta sentitzea eta pertsonaiekin, bai iheslariekin bai jazarlearekin, identifikatzea. Eta identifikazio hori ez da bakarrik gu eta pertsonaien artean gertatzen, jazarlea bera ere heltzen baita iheslariekin identifikatzera: "Nire bizitza, nire pentsamenduak, hainbestearaino katramilatu ziren ilegorriarenekin, non ezin bainuen pentsatu hartaz hiltzaile harrapatu beharreko bat bailitzan soilik. Banekien haren pistola eta nirea alde batera utzita, haren ile

gorriak eta nire ile beltzak alde batera utzita, anaiak ginela". Bien arteko identifikazio hori lortzeko, Ballingerrek bihozkadak baliatzen ditu; izan ere, poliziak, hasieran, Turner jaunaren emaztea baino ez du bilatzen, ilegorria ustez gerran hil zelako; eta, bihozkadengatik ez balitz, ilegorriak ezingo luke jakin polizia atzetik dabilkiola: "Bihozkada bat dut. Jazarpena hasi dela esaten didan ahots bat bezala izan da". Amaiera, jakina, tragikoa izango da. Hori hasiera-hasieratik susmatzen du irakurleak, ia dena gertatzen baita alde aurretik imajina dezakegunari jarraikiz, baina, nola ez, Ballingerrek ezusteko bat baino gehiago gordetzen digu amaierarako.

Xavier Coma adituak dio nobela hau dela Ballingerren (1912-1980) maisulana. Beharbada hala izango da, nahiz eta irakurle arrunta-

ren-tzat ezagunagoak izan hark egindako bestelako lan batzuk, batez ere telebistarako-eta egindakoak: *Ironside*, *Bonanza*... Nobela beltza maite duen irakurleari orobat egingo zaio ezaguna gaur txoko honetara ekarri dugun egilearen *Kez egindako erretratua* (1950), aztergai dugun *Ilegorriaren emaztearekin* antz handia duena, batez ere egitura aldetik, Ballingerrek bietan erabiltzen baitu teknika bera.

Bi eleberri horiek euskaraz irakurri ahal izatea Igela argitaletxeari zor diogu. Lehena Joxemari Iturraldek itzuli zuen 1992an, eta bigarrena Xabier Olarrak 2007an, eleberria argitaratu eta berrogeita hamar urtera hain justu. Egunen batean aitortu beharko zaio Iruñeko argitaletxeari musu-truk egin duen lan itzela, eta bereziki Xabier Olarrari, inork gutxik egin

baitu horrenbeste lan, kantitatearen nahiz kalitatearen aldetik, gurera ekartzeko bestela arrotza izango li-tzaigukeen literatura. 2006an Itzulpengintzako Euskadi Saria irabazi zuen Xabierrek, Raymond Queneauren *Estilo Ariketak* liburuari esker, eta 2001eko sarietan ere aipamen berezia jaso zuen. Azkar esaten da, baina hogeitazko liburu baino gehiago itzuli ditu dagoeneko, eta askoz gehiago zuzendu eta argitaratu.

Bidenabar esanda, Iturralderen itzulpenetik Olarrarenera igarotako urteetan euskal itzulpengintzak eta, oro har, euskararen normalizazioak berak egin duten aurrerabideaz jabetzeko aukera aparta ematen dute Ballingerren bi liburu horiek. Pena bakarra da, penarik izatekotan, irristatu diren akats apurrak ekiditeko kontu pittin bat gehiago jarri ez izana.